

Gure apaizak eta xinismena

Alderdi, 179. zk., 1962-02.

Nere erriko apaizengaitik izan ez ba'zan, nik azpaldi xinismena galdu nuan.

Ba'dakit bakarrik ez naizela, ta gure erriko gazte mordo aundi batek nik ainbat esango lukela. Bañan ez nuke gai onetaz besteren izenean itz egi nai; ba'liteke, ta, nere iritxi ta asmo guziak berenak ez izatea.

Nere ustez, erlijio xinistea ikasi egiten da.

Alegia, zerbaitetzaz xinisteko aurrena gai ori ezagutu egin behar da. Ezaguera ori berez etorri liteke edo norbaitek erakutsia izan liteke. Nik uste detanez, iñork erakutsi izan ez ba'ziran ere Jaungoiko baten ezaguera berez nere burura jexkiko zitzaidan. Gizonak jaiotzaz ba'dakarzki alako bere suma-bide batzuek, eta erlijio men edo sentidu bat berez jaiotzen zaio gizonari. Deitu akiozute Goi-bildurra edo nai dezutena.

Bañan nik ez nituan amar aginduak asmatuko, ta nerez ez nuan beñere Kristo'ren berri izango. Alegia, gizonari erlijio-erakundeak beste gizonen bidez etortzen zaizkio. Ala da maometanoentzat, edo budistentzat, eta ala da kristaudentzat. Bat nun jaiio, ta batek zer ikusi ta zer ikasi, alakoa izatera etortzen da geienetan.

Gero, gure buruan eta gure biotzean aldatzen diguten xinismen landare orren izatea gure esku geratzen da. Ori gero gizonaren ibil-bideetan berak bere buruan eta bere biotzean landu bear dun landarea da. Txikitan gure gogoan itsasitako landare ori mundu zear dabilkigula, makiña bat aize-txistu ta izotz eta eguzki-bero eramán azten dizkiogu. Ta betiko galdu genezake. Nik nere gixa ikasi detanez, ez du xinismen-landare onek beti itxura berdiña gordetzen. Batzuetan igartzera ba'lijoake bezela nakaltzen da; bestetan bere zortena tentetzen du; ta noizean bein alako indar berri bat nonbaitetik artu ba'lu bezela azaltzen zaigu.

Nere bururako, xinismen landare onekin ez da nai dana egiten. Alegia, batzuetan kontzientzi azalean dauden arrazoiak dabilta otz-beroak ematen, bañan bestetan uste gabeko indar edo aultasun oiek konturatzen ez geran barruko gogo-bazter batzuetatik sartzen dira. Ala ere, iskutuko arrazoi-indarrak diranean ere, gure xinismen gora-berak izaten dute bere arrazoi bidea, bere lojika. Jaunak ez zuan egige edo absurdorik sortu ta.

Ta emen nator, jira-bira, gure apaizen gaiara.

Neri Kristo'ren ezaguera apaizen bidez etorri zitzaidan. Apaizen eta gurasoen bidez, noski. Ta ez itz esanarekin bakarrik. Gauz bat esan eta bestea egin izan ba'zuten, nere gurasoak eta gure apaizak alperrik ariko zirala uste det. Umek ez du esaten diotena ikastena, egiten ikusten duana baizik. Eta ez det nik uste Kristo'ren ikasbideak bear bezela jasoko nituenik gure apaizen bizi-bidea maxu izan ez ba'nuan.

Nere buruz beste gizonen asmoetatik zear ibiltzen azi naizen eskeroztik, nere gizontasun eta jaungoikotasun maixu izan direnei begira arkitzen det askoetan nere gogoá. Bere itza garaiz esateko ta bere eginbearra garaiz egiteko bildurrak ikusiko ba'nituzke; bere eliztarren eskubide ta gizon-lege ta Jaungoiko-legearen alde gure

apaizak garaiz itz egiten ikusiko ez ba'nituzke, nola berak erakutsi zizkidatzen itz eta eginbideak ontzaz gorde?

Garai zaillean ere gure apaiz geienak Jaungoiko-legean eta gizon-legean zutik ikusi ditut. Ez naiz orrelako adibideak Poloni'n eta Ungari'n bakarrik izatearekin konpormatzen. Eta zorionez, gure errian ere Kristo'ren legea bere legea egiñez, bere ondasuna ta bere lasaitasuna arrixkoan jartzeko kemena duten apaizak ba'ditugu, ta bildurrik gabe gobiernu zibillerako deiak eta erri aldaketak eta insultoak eta kiñu lotsagabeak tente eramaten dakiten apaizak bezela azaltzen ari zaizkigu.

Bai, ba'dira gure errian, zoritxarrez, bestelako apaiz batzuek ere. Bere "karrerari" begira dagozan apaizak ere ba'ditugu. Bere aunditasunarentzako bere erria txikiegia iruditzen zaiote nonbait. Estadu-funtzionario izatearekin konpormatzen diran gizonak zoritxarrez beti izan ditugu gure errian. Bere aitonaren izkuntza ikatz-saltzallearentzat bakarrik Jaunak jarri dula pentsatzen duten apaizak ere ba'ditugu gure errian.

Bañan Ungari'n eta Poloni'n tente dauden apaizak Euskal Errian askoz ere ugariago ditugu, ta orrek sortzen digu biotzean eta buruan alako itxaropen aundi bat. Egun beltz batzuek oraindik ba'datoz ere, orrelako apaiz-gizonarekin gure erriak xinismen ezurrari elduko dio.

Ta bizi danarentzat eguzkia urtengo da.

Nere erriko apaiz oien ejemploak, bere buru-eskeintzak eta Jaungoikotasunak Euskal-Erriko gazte askoren biotzak berotuko dituzte, nerea berotu ta itxaropenez bete diraten bezela.